


ZER BERRI "SORALUZE BASO BIDEZ" / BAI EUSKARARI KONPROMISOAK
KIROLA MENDI TALDEAREN ESKI IRTEERA OTSAILEAN

@ pipilean

Soraluzeko Hamabostekaria 83. alea 2004ko urtarrilaren 30a



Merkataritza
herriaren bizitza



Tornileria-estanzazioa
eta
extruzioa hotzean

GOL

GOL industriak S.A.
Sagar Erreka, 19 45 PK
Telefona: 34 943 75 21 00
Faxa: 34 943 75 17 12
20590 SORALUZE

Iragarlearen txokoan: Ezosi jatetxea

Ezosi Auzoa - Telefona: 943 75 10 01 - 20590 Soraluze

*“Betiko janak betiko eran
preparatzen dittugu baina itxura
ezberdin batekin aurkeztu”*

Zela pentzau zenduten Ezosi jatetxia zabaltzia?

Ni (Leire Gonzalez) eibartarra naiz. Eibarren 5 lagunen artian jatetxe bat daukagu. Jakin genduan Ezozin bazala jatetxe bat itxita eta ikustera etorri ginan. Ze tokitan zeguan eta barrutik zelakua zan ikusi genduanian zabaltzia erabaki genduan.

Zenbat pertsonak lan egiten dozue jatetxian?

Asteburuetan zortzi lagun izatera heltzen gara. Bixkor eta ondo emoteko jende asko bihar da. Langile plazentziarrak be badauzkagu.

Zer moduzkua izan da hasieria?

Hasiera danetan moduan jentia poliki poliki dator baina etenik barik eta hori da garrantzitsuena.

Zein da zuen berezitasuna?

Goxogintza batez be. Gainerakuan sukaldaritz



tradizionala da lantzen doguna. Betiko janarixak betiko eran prestatzen dittugu eta gero platerian jartzerakuan itxura ezberdin bat emoten saiatzen gara.

Eguneroko menua ze preziotan daukazue?

Eguneroko menua 8,5 eurotan. Asteburutarako, eguneko menuarekin eta kartako janari batzuekin 12 euroko menu berezi bat jartzeko. Astian zazpi egunetan daukagu zabalik, domeka gabetan ezik.



Aurrerapenaren morroi

KARMELE ORTUETA

Gehiena jota ere bota hogeitamar urte, eta gure arteko bizimoduak egin duen aldaketa izugarria izan da. Aurrerakuntza handia gertatu da. Begiratu batera denok ongi bizi gera, bainan denok sartuta gauden gurgil zurrinbilatsu honetan bada kontraesanik franko. Sasoi batean ez genduan gauz askorik edukiko, bainan zorionsuaguak ginan, eta behar gendun hura lortzeko ez geneukan urrutira joan beharrik... gure herrietan barrena desagertu diran hainbat denda txiki zeinek ez ditu faltan botatzen? Oraingo supermerkatu erraldoi hoietan beste genero ez zan izango, bainan eramaten gendun bizimodu xumea osatzeko beste bai. Betiko jangaietatik aparte, dendako atzekaldean izango zan aterki, alpargata, josteko beharrezkuak eta argia falta zenerako kandela eta argizari kordelak, esaterako. Bainan hor ez zen bukatzen auzoko denda txiki haien egitekoa, bertara hurbiltzen ziran bezeruendako beren etxearen jarraipen bat bezela ziran, halakoxe konfidantza zegoen beren artean. Han kontatzen zitzuten elkarren goraberak, eta zer esanik ez herriko notiziak.

Gaur egun denbora libre gehiago, astia sobran daukagu, bainan sartuta gauden gurgil horrek eraginda sekula bainon presa gehiagokin bizi gera. Astearen erdia asteburua antolatzen ematen dugu, besteak beste hor jungo gara kotxia hartu eta

supermerkatu handi horietako batera, bat besteari bultzaka behar ditugunak eta ez ditugunakin karrua bete leporaino eta gure etxe ondoko bat baino gehiagokin topo egin bertan, hauei justu justu buruakin kiñu bat egin eta ... ordaintzeko kaje-ruarena gerturatu eta askoren presa eta kakalarrixa nolakoa dan ohartzeko kartel bat ikusiko dezute ipinita "hamar gauza baino gutxiago dituztenantz" holakorik... lehenago bezela olixua etxetik eramandako botilan bete behar balute, eta azukarra zakutik papel zorruan pixauta eman...

Etiketaz, markaz eta kontrolez bete gaituzte, baino etiketarik handiena geure buruari jarri diogu, askotan ez dagokigun etiketa. Ardien antzera bat doian tokira beste danak atzetik doiaz, baina azkenian bildur naiz inoiz baino bakarrago ez ote geran sentitzen.. elkarri adarra jotzeko ohitura bera ere galdua degu iada. Ez geran hori antzetzten badegu, nahiko lan.

Gure herrian gelditzen diran dendari bakanen aurrian, txapela kentzekua da, beraiek irauten duten heinean, herri izaeraren zati bat bizirik gordeko degulako. Lehenago Gabonak iristean beren bezeruak nolabait eskertzeko turroiren bat izaten zuten eta sekula faltatzen ez zen kalendaixo ponpoxoren bat sukaldeko horman zintzilikatzeko, gaur beraientzat nere txaloak, eta eutsi goiari.

Telegrapak

Kaixo irakurle. Stop. alea goitik behera irakurri ezkerro bakarrik. Stop. ulertuko dittuzue telegrapak. Stop. animo ba!. Stop. Merkataritzari tokatu jako oinguan. Stop. badauka bai. Stop. baten batek kaso egitteko biharra. Stop. noizko omenaldiak?. Stop. tabernari eta dendari mitikoei?. Stop. merezi, merezi dabe batek baino gehixaok. Stop. omenaldirik onena herrixan erostia. Stop. noizko Soraluze Denda Bidez?. Stop. basoekin gogoratu gara. Stop. pago eta haritzak gutxituz doiaz. Stop. baserritarrak bebai. Stop. badoiaz elkarrekin. Stop. eta elkarrekin doiaz. Stop. ez da erreza izango bakarka buelta emotia. Stop. Ipar Ameriketako indioek indarra galdu zebenian... Stop. bufaloak gutxitu ziran. Stop. eta bufaloak gutxitu ziranian... Stop. indioak galdu ziran betiko. Stop. lurrari beste begi batzuekin begiratu bihar gontzake. Stop. baina tira... Stop. euskarari be ez legoke gaizki. Stop. beste begi batzuekin begiratzia. Stop. edo begiratzia besterik barik. Stop. RK Zulon komun publikoetan marraztu bihar littuzke bere marrazkiak. Stop. apurru eta itxi ez balittuzte... Stop. abesbatzari zorionak. Stop. ez bagenki humillak dirala. Stop. ez gontzake sinistuko. Stop. zeonak diran. Stop. Santa Agedetan ikusiko dittugu. Stop. ah eta masaia tailandarrak ikastia ondo legoke. Stop. ji,ji,ji!. Stop. on egin San Blasak!. Stop. ieup!



Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkarte

Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze.

Telefonoa 943 75 13 04

comunidades.kzgunea.net/PilPileanKulturaElkarte/EU
pilpilean@euskalnet.net

Erredakzio burua: Egoitz Unamuno

Erredaktoreak: Eguzkiñe Aldazabal, Enara Agirre, Gurutze Ariznabarreta, Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan, Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Eneko Beretxinaga, Gorka Salaberria, Egoitz Unamuno eta Arianne Unamuno.

Publizitatea: Ugaitz Catalan (943 75 13 04)

Logotioa: Jon Gabilondo
(943751304 tel.)

Banaketa: Pil-pilean **Ekoipezna:** 1.850 ale

Inprimategia: Gertu Koop.

Azala: Pablo Galarraga

Diseinua eta Maketazioa: Aitor Madrid

I.Z.K.-a: G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.




SORALUZEKO
UDALA



EUSKO
JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA



Erreportaia

Azken urteotan gero eta zabalduegia da erosketak merkatalgune handietan egiteko ohitura. Erosotasuna, aukera zabalagoak, prezio hobekak... izaten dira aitzaki autoa hartu eta hipermerkatu handienetara joateko. Bitartean herriko denda eta merkatalgune txiek ahal bezela eusten diote joera honek dakarkien salmenta murrizketei.

Zorion agurrak



Miren Muguruza
Urtarrilaren 21a 3 urte
Ibon Muguruza
Urtarrilaren 20an 35 urte
ZORIONAK BIKOTE!!
Ondo pasa eguna, Patxo
handi handi bat.
Etxekuen partez.



Felix Gaztañazatorre
Urtarrilaren 16a
ZORIONAK!!
33 urte... bai Jauna!!
Segi betiko umoriakin,
bai Jauna!!
Zure anai-arreba berriak.



Omar Rascon
Urtarrilaren 17a
2 urte
ZORIONAK
TXIKITO!!
Txintxua izan eeh.
Etxekuen partetik.



Cristina Morales
Urtarrilaren 23a
ZORIONAK!!
Segi hain alaia eta
farretsu.
Etxekoan partetik.



Eneko Perez
Otsailaren 19a
ZORIONAK!!
Orain arte sinpatiko
eta JATOR jarraitu.
MUXU ASKO.
Etxekoak baina
batez ere Oierren
partetik



Ivan Martin
Urtarrilaren 21ian
24 urte
ZORIONAK!!
Asko maitte zaittugu
Ivaxto!potxolo!
Etxekuen partetik.



Loiola Madera
Urtarrilaren 29xan 25 urte
ZORIONAK!!
Zure bateria soinuari Jelay
Gal An-en estiluaren era-
gina antzematen da. Áffu!
Lagunen partetik.

David Rascon
Urtarrilaren 31an
ZORIONAK
MORROSKO!!
Omar, emaztea eta
etxeokak.

Mikel Tornos
Urtarrilaren 4an
28 urte
ZORIONAK!!
Parranderi lagatzeko
edadian gauaz eh!
Lagunak.

Edu Alvarez
Urtarrilaren 2xan
28 urte
ZORIONAK!!
Eta urte askotarako!
Asko maitte zaittugu.
Lagunak (neskak).

Iñigo Mendia
Urtarrilaren 19xan
28 urte
ZORIONAK!!
Muxutxu asko guapo!
Etorri gehixaotan.
Lagunak (mutilak).



Begoña Lete eta Joxe Etxeberria
Urtarrilaren 31n
50 urte ezkontuta
ZORIONAK!!
Erromerixen doinu goxo-goxuan jairraitu deizuen
alkar maitatzen urte askuan.
Sendiaren partetik.



BEKAK

Graduatu ondoko prestakuntza

Caja Madrid fundazioak lizentziatu eta goi-mailako tituludunentzat Europako Batasuneko eta Estatu Batuetako unibertsitateetan ekonomia, soziologia, politika-zientziak, zuzenbide politikoa eta zuzenbide konstituzionalari dagozkie gaitan graduatu ondoko prestakuntza jasotzeko bekak hornitu ditu. Beken onuradunek Master ikasketak, Doktoretza edo Doktoretza ondoko lkerketak egin ditzaten. Baldintzak: goi-mailako titulua eta bekak helburu dituen ikasketak egiteko herrialdeko hizkuntza ahoz eta idatziz ondo menperatzea. Epea: martxoak 5

LEHIAKETAK

Iritzi artikulua

EHUK, Arabako Campuseko Errektoreordetzak eta El Correo-k Iritzi-artikuluen I. Unibertsitate Lehiaketa antolatuta dute. Bertan EHUKo ikasle guztiek parte hartu ahal izango dute, euskarazko zein gaztelaniazko gehienez ere 2 orrialdeko luzerako artikulua bakarria aurkeztuz. 1.000 euroko sari bakarria. Epea: otsailak 4

JARDUERAK

Etxebizitza Gazte Ontzia

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) etxebizitzaren arazoa konpontzearen aldeko apustu garbia abiatzeko "Etxebizitza Gazte Ontzia" izeneko programa jarri du martxan, gaiari buruzko interesa duten hiru gazte talde osatzeko helburuarekin, EAEko lurralde bakoitzeko talde bana. Hasierako batzarra otsailaren 9an, astelehenean, arratsaldeko 19:00etan izango da EGKk Gipuzkoa, Araba eta Bizkaian dituen egoitzetan. Bertara interesa duen gazte oro aurkez daiteke aurretik izenik eman gabe. www.egk.org

Legazpiko Gaztetxea

Legazpiko Gaztetxeak, bere 13.urteurrena dela-eta, akanpadak, erakusketak, kontzertuak, ikastaroak, tailerrak eta beste hainbat ekintza antolatu ditu datozen asteetara begira. www.legazpikogaztetxea.com

LANA

Santurtziko Udala

Santurtziko Udalak ondorengo lanpostuak betetzeko oposizio-lehiaketa libre-ak antolatu ditu: ordenantza bat, 8 administrari laguntzaile, 4 administrari, liburutegiko 5 laguntzaile, musika irakasle bat, 2 gizarte-langile (hauetako bat ezinduentzat gordeta). Baldintzak: lanpostuaren arabera. Epea: otsailak 10.

Ajenda

ODOL EMATEA

Urtarrilaren 30ean (barikua)
Frontoiko Ikastolan arratsaldeko
19:00etan.

HAUTESKUNDEETARAKO PROPOSAMENA

ren aurkezpena.
Urtarrilaren 31n (zapatua) Plaza Barrixan. Ezker abertzaleko taldeek deituta.

KANDELARIA EGUNA

Otsailaren 2an (astelehena)
- 19:00etan Meza herriko parrokiari.

SAN BLAS EGUNA

Otsailaren 3n (martitzena)
- 11:30etan umeendako bedeinkapena parrokiari.
- 19:00etan helduendako meza eta bedeinkapena parrokiari.

SANTA AGEDA BEZPERA

Otsailaren 4an (eguztena)
Arratsaldeko 18:00etan, Soraluzeko Musika Eskola eta Ibilixan Ibilixan Bertso Eskolaren Santa Eskeko saioa. Santa Ana kaletik aterata herrian zehar egingo da ibilaldia. Tartean koplak ere abestuko dituzte.

Arratsaldeko 20:30etan Abesbatza aterako da Plaza Zaharretik.

Otsailaren 7an (domekia)

Goizeko 8:00etan Plaza Barritik irtenda, Santa Ageda eskean joango dira Ezoz, San Andres eta Txurruka auzoetako baserrietara.

Zer irizten dotsazu?

Azken urteotan taberna eta denda mordoxka itxi da herrian. Denden kasuan, batez ere erropa dendak izan dira itxi direnak baina janari dendak ere ez daude euren garairik onenean. Inguruko herrietako dendek eta saltoki handiek herritar asko erakartzen dituzte. Erosketak herritik kanpora egitearen zergaitiaz galdetu diegu soraluzetarrei.

Zergaitik egiten dittugu erosketak herritik kanpo?



Jesus Uzin
45 urte
Teknikaria

Nik uste dot gauza batzutan eukera gutxi daguala, erropetan eta adibidez. Janarixari eta dagokixonez, denda haundixetan txikixen aldian merkiagua ataritzen dalako produktua. Ondo legoke eguneroko gauzak herrixan bertan erosi ahal izatia.



Rosi Gómez
43 urte
Etxekoandria.

Jendia kanpora aukera bila jauten da, herrixan ez dagan gauzia. Ikusten da zaila dala herrixan denda txikixak aurrera etaratzia, jendiak gogokuago baitauka kanpora juatia, nahiz eta gero, egunero eguneroko gauzak bertan erosi.



Eneida Gorostidi
36 urte
Metal arloko langilea
Denda txikixak ezin dabe denda haundixauekin lehia-tu. Haundixetan gauza gehi-xao erosteko aukeria baita-go, ta merkiagua urtetzen da. Errezagua da denda haundi batera juan eta epe luzerako ersoketak egittia, egunian egunekua egitten jardutia baino.



Juan Francisco Martínez Menendez
58 urte
Elektratresna egilea
Eztakit ba, jendia jadanik ohittuta dao kanpora juaten. Uste dot arrazoi nagusixa herrixan denda egokirik ez izatia dala. Pentsatzen dot, herrixan denda bat aurrera etaratzeko, jendia bertan erostera ohittu bihar litzake-la.



Jon Aizpurua
35 urte
Langilia.
Nik uste dot ez dala asko inbertidu herrixan denda txikixak jartzian eta horre-gaittik daguala aukera gutxi gaur egunian eta hoirregai-ttik juaten dala kanpora jentia. Pentsatzen dot herrixan denda txiki bat jartziak euki leikiala etorkizuna.



Larraitz Lakuesta
31 urte
Soziologa langabetua
Jendia kanpora juatian arra-zoia denbora faltia da. Herrixan denda klasiak falta dira, baina arlo batzutarako badago aukeria. Denda txiki-rik ez egotian arrazoi nagusi-xa, jartzen jakuezen zerga haundixak dira eta ondorioz preziuak garesti xamarra.

GILA TABERNA
Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik
Gosarixak eta pintxo goxo goxuak !!



Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34

Kontulan Aholkularitza S.L.
Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk. 20590 Soraluze
Tlfonoa: 943 75 17 82 GIPUZKOA

“Soraluze Baso Bidez” egitasmoa



Herriko basoetan gero eta gutxiago dira pagadi eta hariztiak.

Udaleko Nekazaritza eta Ingurumen sailak “Soraluze Baso Bidez” izeneko egitasmoa garatzen hasi da. Egitasmo hau, orain bi urte Roke Akizu ingurugiro adituak herriko baso eta masa forestalaren azterketa egin ostean osatu da. Azterketa horrek, herriko mendietan bertako zuhaitz motaz osatutako basoak gero eta urriagoak eta gero eta egoera txarragoan daudela ondorioztatzen zuen. Nekazaritza Batzordeburearen esanetan, egoera horri aurre egiteko asmoarekin hasi da Udala, “Soraluze Baso Bidez” egitasmoa garatzen Roke Akizu soraluzetarraren zuzendaritzapean. Rokek azaldu digunez, egitasmoaren funtsa “lurjabeekin berba egin eta herriko mendixetako lur eremu batzuetan bertako zuhaitz motak izango dirala bermatzea da”. Horretarako, Udalak Foru Aldundiaren laguntzaz hitzarmen proposamen bat prestatu du baserritarrei aurkezteko.

Joan zen larunbatean, Udaleko Nekazaritza eta Ingurumen zinegotzia eta Ezosi auzoko basoetako lurjabeak bildu ziren lehen aldiz Udaletxean. Bileran honetan, bertako zuhaitzez osatutako herriko basoen kudeaketa helburu duen hitzarmen horren proposamena aurkeztu zien Udalak baserritarrei. Hitzarmen zirriborro honetan, basoen garbiketa eta zainketaren truk, lurjabeen euren lurren kudeaketa Udalaren esku

uztea proposatzen zaie, hogeitamar urteko denbora tartean. Denbora tarte horretan, Udalak lur eremu horren kudeaketaren ardura osoa izango luke eta lur saila eskuz aldatu arren ere hala izaten jarraituko luke. Dirulaguntzei dagokienez, hauek ere Udalak jasoko lituzke kudeaketa lan horietan inbertitzeko.

Bertako zuhaitzez osatutako basoen gain, hitzarmena, orainartean utzita edo egur produktiora bideratutako bestelako zuhaitz motaz osatutako basoei ere ezarri dakieke. Azken kasuotan Udala arduratuko litzateke beharrezko landaketak egiteaz lehenik eta eremuaren garbiketa eta zainketaz ondoren. Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ingurumen Sailaren laguntza izango du lan hauek bete ahal izateko.

Orain, baserritarrek astebeteko epea izango dute hitzarmenaren inguruan hausnartu eta egitasmoan parte hartu edo ez erabakitzeke. Astelehen honetan Udaletxean egingo da horretarako bilera baina dagoeneko lurjabeak batzuek azaldu omen dituzte euren eritziak, “baizkoak batzuk eta ezezkoak beste batzuk”.

Lehen bilera honetara Ezosi auzoko baserritar eta lurjabeak bakarrik deitu zituen Udalak. Gainontzeko auzoetako lurjabeekin datozen asteetan batukodela adierazi du.

AEK matrikulazio epea zabalik

Euskaltegian matrikulatzeko epea irekita dago dagoeneko. Euskalduntze orokorra, EGA, hizkuntza eskakizunak eta gurasoendako ikastaroak eskeintzen ditu euskaltegiak. Matrikulatzen diren guztiek Udalaren dirulaguntza izango dute.

Informazio gehiago 943751434 telefono zenbakian edo soraluze@aeknet.net helbidean.

Erresidentziako igogailua martxan

Joan zen astetik martxan da dagoeneko erresidentziarako igogailua. Igogailua erabilpen publikokoa izango da eta erresidentziako bizilagun eta euren senideez gain, beste edozeinek ere erabiltzeko aukera izango du.

HHIko matrikulazio epea zabalik

Soraluzeko Helduen Heziketa Iraunkorreko zentroak 2003-2004 ikasturterako 2. Lauhilabeterako izenemate epea otsailaren 6arte irekita duela jakinarazi du.

Oinarrizko Formakuntza Programak ondorengo hauek dira:

- Bigarren Hezkuntzako Graduatua -25 urtetik gorakoak
- Unibertsitaterako sarrera.
- Ingelera eta euskara: hastapen moduloak.
- Kultura orokorra.
- Etorkinei harrera.
- Alfabetizazioa.

Interesatuak ondorengo helbidera jo dezakete arratsaldeko 16etatik 19etara:

Soraluzeko EPA (HHI). Baltegieta 18, behea edo bestela 943753017 telefonora deitu.



Barra kargadore automatikoak eta makina bereziak

ETXEHUN, S.A.L.

Mendiola Industrialdea 14-5

Tfnoa 943 75 18 91

Faxa 943 75 24 58

E - maila: etxehun@teletel.es

etxehun@euskaltel.net

20590 SORALUZE

Gipuzkoa

Instalaciones Kalebarren S.L.



GAS INSTALAKUNTZAK
ETA PROIEKTUAK
KALEFAKZIOA ETA AIRE EGOKITUA
ITURGINTZA OROKORREAN

20590 SORALUZE TEL. / FAXA: 943 75 23 07 ESKUKO TEL.: 608 67 40 70 / 607 40 37 92
48017 DEUSTU TEL.: 944 75 99 60 POSTA ELEKTRONIKOA: KALEBARREN@INICIA.ES

Bai Euskarari ziurtagiriaren banaketa



Euskararen aldeko konpromezuak hartu dituzten herriko hainbat eragileri Bai Euskarari ziurtagiria banatuko zaie Otsailak 6an arratsaldeko 19:30etan "Kapillan". Ziurtagiri hau herriko 30 bat gizarte eragilek lortu dute, orain beste urtebetean jarraipena egingo zaie gizarte eragile hauei eta konpromezuak betetzen dituztenei datorren urtean berriztu egingo zaie ziurtagiria. Harturiko konpromezuak betetzeko Udaleko eta

Euskalgintzaren laguntza izango dute eragileek.

Hiru maila ezberdinetako ziurtariak jasoko dituzte eragileek, bakoitzak hartu dituen konpromezuen pareko ziurtagiria jasoko duelarik. Urtez-urte egingo den jarraipenak ziurtagiriaren maila igotzea ekar lezake baina baita ere konpromezuak betetzen ez badira maila jeistea edo eta ziurtagiria kentzea.

Espaloi ginetan aparkatzearen aurkako neurriak

Udalatzaingoak jakinarazi duenez, aurrerantzean, Udaleko Hiri-gintza batzordeburuaren aginduz, espaloi ginetan aparkatutako autoenganako zorrotasun andia goz jokatu dute. Neurri honen helburua, "espaloiak oinezkoendako zabalik izateada, azkenaldian herritar askok horrela aparkatzeko hartu duten ohitura dela eta". Bestalde, eraikuntza lanak dauden inguruetako bizilagunei ibilgailuak traban ez uztea ere eskatzen zaie. Udaltzainek herritarren jarrera ona eskertu nahi dute.

Hauteskundeetarako proposamena

Ezker Abertzaleak hauteskunde espainiarreni begirako proposamenaren aurkezpena egingo du larunbat honetan eguadiako ordubatetan Plaza Berrian, ESPAINIARI EZ lelopean. "Gerra garaitik hasi eta gaur egunerrate espainiar estatuak Euskal Herriaren kontra daraman zapalketa salatu"ko dute bertan. "Espainiatik datorren erasoaren tamainako erantzuna ematea" izango du ezker abertzaleak helburu espainiar hauteskundeetan.

Istripua Ansola parean

Joan zen astelehenean auto istripu berri bat gertatu zen Embalajes Ansola lantegiaren parean. Goizeko 8:30ak aldera bi autok elkar jo zuten eta gidarietako batek zauri larriak jasan zituen. Ertzantzak adierazi digunez auzia epaitegietara joango da.

Komunak itxita

Azken asteetan izan diren apurketa eta matxuren ondorioz, Udalak komun publikoak itxtea erabaki zuen urtarrilean. Udalak ez du erabaki noiz zabalduko dituen berriro.

Motoclub Plaentxi "Pinguinos" en

Aurten ere Motoclub Plaentxi taldeko motorzaleak "Pinguinos" elkarretaratzean izan dira. "Pinguinos" Boecillo (Valladolid) herrian egiten den motorzaleen elkarretaratzea da. Mundu mailan egiten den handienetako bat. Juani Yanguasek adierazi digunez, aurten, eguraldi ona izan denez, 20.115 motorzale bildu dira, "orainarteko partehartze kopururik handiena izan da".

Juanik azaldu digu, aurtengo edizioak esanahi berezia zuela taldekoentzat, "Mariaje Barcala izan delako gurekin. Motorzale bat jakin izan duena ingoa izaten Bizitzaren Sari Nagusian. Zoriondu egin nahi genuke hemen egotearren". Bestalde, urtero moduan, Juanik oroitzapen berezi bat izan



nahi luke orain lau urte moto istripuz hil zen bere anaiarekin.



EDURTZA Kafetegia
Taberna eta jatetxe zerbitzua

Eguneroko menua eta pintxoak

Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze



Lakuesta
Optika 

Ikusmen arazoaren frogak eta argibideak

Argazkiak errebelatzen ditugu

Santa Ana, 22 C- behea
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 30 59

MERKATAL GUNEAK SORALUZEN

Okindegiak	3
Altzariak	3
Arraindegia	1
Autoeskola	1
Bazarra	1
Bideo-Kluba	1
Bitxidenda	1
Dietetika	1
Disketxea	1
Estankoa	1
Frutategiak	2
Gozotegiak	3
Harategiak	7
Ileapaindegiak	5
Janaridendak	8
Jantzidendak	5
Liburudendak	1
Loradenda	1
Loteria	2
Oinetakoak	1
Drogeriak	2

*Iturria: Soraluze Gida 2003



Merkataritza bizirik herria bizirik

Azken urteotan gero eta zabalduegia da erosketak merkatalgune handietan egiteko ohitura. Erosotasuna, aukera zabalagoak, prezio hobekak... izaten dira aitzaki autoa hartu eta hipermerkatu handienetara joateko. Bitartean herriko denda eta merkatalgune txikiak ahal bezela eusten diote joera honek dakarkien salmenta murrizketei. Gauza bat dago argi, denda horiek direla herria bizirik mantendu eta izaera ematen diotenak; lanpostuak eta harremanguneak (herriko informazio gune nagusiak) sortzeaz gain, ezinbesteko eta oinarritzko zerbitzuak eskeintzen bait dizkigute soraluzetarroi.

Soraluzeko dendariendako "urrezko garaia aspaldi amaitu ziren". Halaxe ohartarazi gaitu herriko merkataria ezagun batek, merkataritzaren egoera herrian nola ikusten duen galdetu diogunean.

GATC-ek (Merkatariaren harrerarako taldeak) 2003an Debabarreneko herrietan egindako eroldaren arabera; Soraluze 46, Eibarren 500, Elgoibarren 180, Mendaron 16, Deban 66 eta Mutriku 72 merkatalgune txiki daude. Soraluze beraz, merkatalgune kopuruari dagokionez azken aurreko legoke Debabarreneko herrien artean.

Salmentak behera

Azkenaldian bi erropa denda ezagunek (Santa Ana Kirolak eta Celiak) zint-

"Soraluze azken aurreko lekuan legoke Debabarreneko herrien zerrendan"

tzilikatu dituzte "likidazioa" dioten karteltxoak eskaparateetan. Hala ere badira beharpenak iragartzen dituzten denda bat baino gehiago, asko ez diren arren. Datuei begira hasita, janaridenda txikiak eta harategiak dira jarduera nagusiak. Bestalde, gaur egunean oinarritzkoak diren beste zerbitzu batzuen falta ere somatzen da herrian; Informatika Denda, Argazki Denda ...

Merkatarien artean galdetuta, ia denek aipatzen dute azken urteetan izan

den salmenta jeitsiera. Gehientsuenen eritiz, jeitsiera hau, azken urteotan Eibar, Elgoibar, Bergara eta Arrasaten eraiki dituzten merkatalgune handiek eragin dute. Herritar askok, erosotasunez astean behin erosketak egiteko ohitura hartu dute eta prezioetan eta aukeran herri handiangoetako saltokiek eskeintzen dituzten abantailek, areagotu egin dute joera hau.

GATCren aholkularitza

Bereziki Debabarreneko herrietako Merkataritzaren Sustapenez arduratzen den erakunde publikoa da EGATC. Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako zerbitzua da eta Debabarreneko herrietako merkatariei aholkularitza zerbitzua eskeintzen die dohain. Erakunde honen ar-

“Bereziki Debabarreneko merkatalguneei aholkularitza emateaz arduratzen den erakundea da GATC”

duradun nagusia den Leire Ojanguren teknikariak azaldu digunez, aholkularitzaz gain, merkatal gune bat izan edo ireki nahi dutenendako dirulaguntzak ere kudeatzen dituzte. Bi eratako laguntzak jaso omen daitezke, batetik dagoeneko zabalik dauden dendetan berriztapenak egin edo eta azpiegitura teknikoak berrizteko ematen direnak eta bestetik, merkatalgunea irekitzeko laguntzak. Bi kasuetan, dendariaren egoera ekonomikoaren arabera kokatzen izaten omen dira kopuruak. Dendari Elkartearen eskariz antolatutako formazioarako ikastaroak ere antolatzen omen dira urtean zehar.

Herrian ezer ez

Herrian, Udalak ez du merkataritzaren garapena sustatzeko proiektu edo zerbitzu berezirik. Denda irekitzerakoan eman beharreko alta da Udalak kudeatzen duen zeregina bakarria. Merkatu Plazaren kasua hala ere berezia da, Udalak alokatzen bait die merkatariei euren postua jartzeko eremua.

Merkatarien artean ere ez da gaur artean Dendarien Elkarte edo antzeko ekimenik sortzeko asmorik agertu. Duela urte batzuk herriko tabernari batzuk osatutako Tabernari Elkarte izan zen esperientzia bakarria, hala ere ez zuen aurrera egin.

“Herriaren erdialdeko kale batean dagoen lokaleko metro karratuak 1.442 euro balio ditu”

Metro karratua 1.442 eurotan

Denda berri bat zabaltzeko gune bila hasi ezker, herriaren erdialdeko kaleetan (Kalebarren, Santa Ana...) eta inguruetan (Gabolatz, Errabal...) badira kalera agertokia duten lokalak. Horietako asko salgai daude. Batzbestekoa aterata, herri erdiko kaleetan erositako lokal batek metro karratuko 1.442 euro / 240.000 pezeta inguruko balioa izan dezake. Alegia, 50 m²ko lokal batek 72.000 euro / 12.000.000 pezeta inguru balio ditzake. Erdiko kaleetatik urrundu ezker metro karratuaren prezioak erdira egiten du, eraiki berriak badira ordea mantendu egiten da prezioa. Prezio hauek noski ez diote asko laguntzen denda zabaltzeko gogoz dagoen herritarrari.

“Ogixa ixa beti herrixan erosten da eta hori abantaila haundixa da salmentak mantentzen diralako”

Mari Tere Mendizabal Mendizabal Okindegia

Gaur egun Mendizabal izenez ezagutzen dugun okindegia “Otolá” zen oraindela urte batzuek arte. Mari Tere eta Isabelen aitita Patrizio Iraola eta amona Teresa Larrañagak (Otolá baserrikoa) erosi zuten okindegia gerra aurreko urteetan. Mari Tere eta Isabelen aita ere, Roberto Mendizabal, Donostiakoa zen eta Gaztelubide elkarte ezaguna dagoen tokian zegoen okindegiko semea zen.

Eurak biak ere txiki txikitatik ohitu ziren okindegian lan egiten. Gaur egun Mendizabal okindegiak hiru saltoki ditu, bi Soraluze eta Arrasaten bestea. Guztira sendiko 10 kidek lan egiten dute okindegian, ez da gutxi.

Aurrerapen handiak

Azken urteotan izan diren aurrerape- nek asko erreztu dute okindegiko lana. Orain urte batzuk arte, eskuz egiten zuten ogia egiteko orea eta ogiak ere

“Inguruko herrietan beharbada Soraluzekoa izan da jeitsierarik handiena izan duena.”

Masi Rojo Merkatuko dendaria

Masi Rojo eta bere emaztea Zumarragakoak dira. Oraindela 22 urte inguru hasi ziren herririk herri euren saltoki ibiltariarekin. Orduan ez omen zegoen beste lanik eta lan mota horri heltzea erabaki zuten. Gipuzkoa eta Nafarroako iparraldeko herrietan saltzen dute gehienbat, “txutxerixak eta azeitunak”.

Soraluzen jeitsiera handia

Bikote honek urte asko daramatza ostegunero ostegunero Erregetxean postua jartzen. Bere esanetan, inguruko herrietan salmentak gehien jeitsi diren herrietako bat da Soraluze. Gainontzeko herrietan ez omen da horrenbesteko jeitsierarik nabaritu, nahiz eta denetan jeitsi den pixkat. “Orain hamar urte, beharbada bikoitza saltzen genuen



bai. Orain dena makinaz. Isabelek azaldu digunez “lehen gaueko ordubatean jeiki eta eguerdiko ordubate arte ibiltzen zan gure aita ogixak egiten”. Orain lauretan jeikita goizeko hamaiketarako eginda izaten omen dituzte, nahizta gaur egun ere nekatu ederrak hartu. Ogintzakoa lan ona omen da baina “txarrena da domeketan be lan egin bihar dala”. Hogeitamar urtean domeketan jai egin eta gero, orain bederatzita urte hasi ziren berriz lanean. Labea egurrez egiten dute orain ere.

Konpetentzia handia

Ogintza arloan konpetentzia handia omen dago herrian. Garai baten ere hiru-lau okindegi omen zeuden herrian “baina orduan jende askoz gehixao bizi zan”. Hori bai, beste produktu batzuk ez bezela “ogixa ixa beti herrixan erosten da eta hori abantaila haundixa da”.



hemen” dio. “Haiek bai zirela garaiek haiek. Orduan askoz postu gehiago izaten ziren Soraluzean ere. Erregetxea dendariz beteta izaten zen baina asko saltzen zen”.

Jaitsieraren arrazoiak

Jeitsiera horren arrazoiez galdetuta, jendeak saltoki handietan erosteko ohiturarengatik izango dela adierazi digu. Nahiz eta azpimarratu digun eurak oso prezio baxuak izaten dituztela. Gehien saltzen duten produktua azeitunak omen dira eta gominolak urrena.

Euskeraz ikasten

Masik ez zekien euskeraz baina AEKn izena eman eta zerbait ikasi omen zuen. Soraluzean jende gutxi egiten omen dio nahiz berak dena ulertu.

Denda eta tabernak; herri baten izaera eta biziaren adierazle.

Soraluze moduko herri txiki bateko bizimoduan denda eta tabernekek duten garrantziaz konturatzeko, nahikoa da dagoeneko itxita dauden denda eta taberna ezagun batzuek gogora ekartzea. Toki hauek zabalik ezagutu dituzten soraluzetarrek, oroitza-pen sendoak izango dituzte bertako dendari edo tabernarien inguruan sortzen zen giro eta pasadizoen inguruan.

Hona hemen itxitako batzuen izenak, gutxieneko adin bateko jendeari ezagunak egingo zaizkionak:

Itxitako denda batzuk:

Marcial Churruca, Idigoras, Kalebarrengo Ferreterixia eta Tintorerixia, Juama Argazkiden-da, Pepelun ileapaindegixa, Erlei, Gilako Estankoa, Gilako Bideokluba, Mantxonekua, La Manola...

Itxitako Tabernetako batzuk: Metro Kuadraua, Txergori, Osasuna, Alaitz, Atxolin, Soraluze, Akelarre, Casa del Pueblo / Herriko Etxea, Zure Etxea, Lonbide, Josexo Bodegia, Clemente...

Taberna Zaharrago batzuk: Anjelenekua, Meltxorrenekua, Bar España, Ekonomatua...



Kooperatibaren mende hasierako erretratua. (Iturria Kooperatiba)

“Bezeruenganako daukagun harremana da, etxe-kuak modukuak dira asko. Horixe da guk zabalik irautiaren sekretua.”

Asun Nuñez Estazioko Bodega

31 Urte inguru dira Asunek eta bere gizonak “Mañua”k Estazioko Bodega zabaldu zutela. Hasieran taberna moduan bakarrik zabaldu omen zuten baina “jateko emoten ez zebanez”, barazki eta bestelako produktuak saltzeari ere ekin zioten.

Iraupenaren sekretua

Horrenbeste urtean auzo bateko denda zabalik izatea posible egin duten arrazoiak oso argi ditu Asunek, “bezeruekin umore eta pazientzia haundixa izatia eta etxeko moduan hartzia, familixa bat moduan”. Hain zuzen ere, horixe da auzoko bezero eta San Andresko base-rritar askorekin duen harremana “familixakuek bagina moduan”. Saltoki handietan ez bezala, saltokia gune sozial eta elkargune auzokoendako; “kartetan, auzoko eta norbere kontuez berba, afa-riak, lehenago San Juan Sua eta abar



egiten dira” (euskeraz ere bertan ikasi du). Harreman estu horixe da hain zuzen, urteak joan eta urteak etorri bezero berak mantentzearen arrazoi nagusia. Eguneko edozein ordutan (bazkalostean ezik), janaria erosteko aukera eskura izateak ere izango du eragina noski. Asunek dioskunez, “zorionez oso bezero leialak” ditu.

Salmentak behera

Hala eta guztiz ere, azken urteetan salmentetan “jeitsiera haundixa” izan dutela esan digu Asunek, lehenago kaxaren erdia inguru. Jeitsiera hori, bere ustetan, alde batetik, jendea, batez ere jende gaztea, erosketak egitera saltoki handietara joaten delako gertatu da eta bestetik, janaritan lehen baino gutxiago gastatzen delako. Etorkizuna beltz xamar ikusten du baina ahal duen bitartean eutsiko diola adierazi digu Asunek.

“Eroski Taldiaren Onda sarian sartu hala ez erabakitze kotan gara, erabaki garrantzitsua izango da”

Begoña Perez de Labeaga Kooperatibako dendaria

Kooperatiba 1.910. urtean zabaldu zuten 6 bazkideren artean. Gaur egun 930 bazkide ditu eta sei langilek lan egiten dute kooperatiban. Beheko bi solairuetan, janaria saltzen dute eta bigarrenean erropak, elektrogailu txikiak eta bestelakoak saltzen dituzte. Begoñak 37 urte daramatza kooperatiban lanean.

Salmenta modu ezberdina

Begoñak azaldu digunez, lehen “olixua, azukarra, koñaka, ardaia, gailetak eta dana granelian saltzen zan. Oin bakoitzak nahi dabena hartzen dau eta askotan itxuraren arabera erosten da”.

Herri handietarako joera

Lehen orain baino gehiago saltzen ote zen galdetuta, “lehen gehixao” saltzen zela erantzun digu. Horren arrazoia,



lehen ez zeguan hiper eta saltoki haundirik eta oin jende gaztia batez be, asteburutan eta egun pasa juaten da eta aste gutzirako jana erosten dau”. Askotan baina jendea harrিতa gelditzen omen da “espero ez zeban zeozer hemen be saltzen daguala konturatzen darian. Askotan hemen egongo ez dala-kuan kanpora juaten da jentia”. Prezioei dagokienez ere “beti da zeozermerkiagua baina tratua dendatxikixetan beruagua da.”

Ondan sartu ala ez erabakitzen

Momentu honetan, Erosle marka desgertzera doanean, Eroski taldearen Onda sare berrian sartu edo ez erabakitze kotan dira kooperatibako bazkideak. Erabaki horrek baldintzatuko du kooperatibaren etorkizuna nolakoa izango den.



Abesbatzaren Parisko abentura

Ezoziko Ama Abesbatza Parisen izan da Abesbatza Arteko X. Jaialdi Internazionalen parte hartzen. Autobusa bete plazentziatar abiatu zen joan den asteazkenean (urtarrilak 21) Pariserantz eta argien hirian 3 egun eman ostean igande gauean itzuli ziren herrira. 60 lagun joan ziren guztira, 30 kantari eta 30 seintarteko-jarraitzaile.

Jaialdiko egitarauaren barruan bi kantalditan hartu zuten parte.

Ostiralean, Italiako Voci del Tempo eta Frantziako Le Grand Choeur du Saint-Maur koruekin batera lagunarteko kontzertua eskeini zuen Parisko Misio Katoliko Espainiarrean. Kontzertu ostean piskolabis bat eta oroigarri bana-keta izan zen abesbatzen artean. Inge-

“UNESCOren egoitzan txalorik gehien jaso zuen abesbatzetako bat izan zen, beste 5 edo 6 abesbatzarekin batera.”

les, Italiano eta frantsez apurra erabiliz giro alaiari mintzatu ziren beste korukideekin. Kantuan ere egin zuten denek batera. Hurrengo egunean, larunbatean, UNESCOk Parisen daukan egoitzan izan zen bigarren kantaldia. Europako eta Estatu Batuetako 16 abesbatzak hartu zuten parte eta abesbatza bakoitzak kantu bana interpretatu zuen. Ezoziko Amak Gaur Akelarre Gorbeian aukeratu zuen, Luis de Haranbururena. Ekital-

diari bukaera emateko abesbatza guztiek elkarrekin kantatu zuten aurretik ikasia zeukatena abesti bat: Kumbaya.

Abesbatzakoak oso pozik etorri dira erakutsi duten maila dela eta. UNESCOren egoitzan txalorik gehien jaso zuen koralekako bat izan zen, beste 5 edo 6 koralekin batera. Kantaldietaz aparte, abesbatzakoek eta laguntzera joan ziren plazentziatarrek aukera polita izan zuten Parisko txokorik eta eraikin dotorenak bisitatzeko.

Santa Ageda bezperan, datorren asteazkenean, herrian kalejira egingo du abesbatzak txistulariekin batera. Iluntziko zortzi eta erdietan izango da.

Tailandiar masaia ikastaroa zapatutan

Datorren Otsailaren 7, 14, eta 21ean goizeko 10:30etatik 13:30etara, ikastola zaharrean masai tailandiar ikastaroa burutuko da Pil-Pilean kultur elkartearen eskutik. Yoga, meditazioa eta masaia uztartzen dituen teknika honen helburua, gorputzeko energia fluxua oreka mental-fisiko eta emozionala lortzera bideratzea da. Beraz, norbere burua zaintzeaz batera, hartu emanerako eta gozamenerako gonbita luzatua dago horretarako tartea nahi duenarentzat.

Izena emateko, 943751304 telefo-

nora deitu behar da otsailaren 4a aurretik. Ikastaroaren prezioa, 5 euro bazkide, ikasle eta langabetuendako eta 10 euro gainontzekoendako da. Guztira 14 lagunendako tokiak izango ikastaroan.

Topaguneak, euskara elkartearen federazioak bazkide dituen elkarteekin egindako gazte kultur zirkuitoaren eskeintza baliatuz, ikastaro honekin batera talogintza eta antzerki tekniken ikastaroak antolatuko ditu Pil-pilean Kultura Elkarteak martxoan eta maiatzean.

RK Zulo; kuadernoak, antzerkia, afaria

Ostiral honetatik aurrera, Gaztelupe, Gaztetxe eta Arrano tabernetan, Haitzuloetako Kuaderno bana jarriko ditu RK Zuloak. Helburua, “edonork, betirako izango den edozein aztarna uzteko aukera izatea; esperientzia, sentimendu zein parida, idatziz, marraztuz edo hutsuneak beteaz”. Bestalde, OTSAILAREN 27an, OSTIRALA, 21:00etan afaria egingo dute Arrano elkarteak. Antzerkirako entsaioak domeketan 19:00etan abadetxean.

Eskia**Eski irteera Cauterets-era**

Soraluzeko Mendi Taldeak eskiatzera joateko irteera antolatu du otsailaren 13, 14 eta 15erako. Irteeraren prezioa, 126 eurokoa izango da (120 bazkideak); autobusa, 2 gauetako loa, 2 eguneko forfait-a, afari 1 eta 2 gosari. Irteeran

izena emateko azken eguna otsailaren 10 izango da. Mendi taldekoek jakinarazi dutenez, 35 lagunendako tokia dago. Irteera otsailaren 13an, barikuan, goizeko 7:30-etan izango da Gila zubitik. Izena emateko mendi taldetik pasatu.

Atletismoa**Azkona Euskadiko 2.**

Donostiako Anoetan jokatu ziren Euskadiko Atletismoko txapelketan parte hartu zuen Arrate Azkonak urtarrilaren 17 eta 18an. Bertan, hirukoitzeko eta alturako jauzien frogetan parte hartu zuen. Hirukoitzean 12,48 metroko jauzia egin zuen, absolutu mailan bigarren postua eta bere adineko (Etorkizuneko Atleta) mailan txapeldun gelditu zen. Alturako jauzian 1,73 metro egin zituen eta hemen ere absolutu mailan bigarren eta bere mailan txapeldun gelditu zen. Otsailaren 7an Espainiko Etorkizuneko Jauzilari mailako Txapelketan parte hartuko du Oviedon eta 21ean Valentzian absolutu mailakoan.

Esnaola garaile Bergaran

Joan zen igandean Bergaran jokatu zen San Antoneko Krossaren 26. ekitaldian Zigor Esnaola soraluzetar korrikalaria izan zen garaile.

Ping-pong Txapelketa

2003ko abenduaren 26an Keixeta guraso elkarteak eta Soraluzeko udaletxeak DBH.ko ikasleentzat antolatutako ping-pong lehiaketako partehartzaileak.

EMAITZAK**Futbola**

Gazteak 1 - SORALUZE 2 (Erre.)

Saillkapena:

13. postuan (16tik) 16 punturekin

Urola "B" 0 - SORALUZE 2 (Juben.)

Zestua 0 - SORALUZE 6 (Kadet.)

(Kadeteak kopako txapelketa jokatzeko hasi dira dagoeneko)

Esku pilota

Haritz Laskurain

-Urtarrilaren 23an-

Zezeaga - Del Rey 22

Laskurain - Nagore 13

- Urtarrilaren 25ean -

Atxa - Urberuaga 18

Laskurain - Etxaniz II 11

Atxotegi eta Garzia

- Urtarrilaren 23an Soraluzen 22 eta 4 irabazi zuten Udaberriko txapelketaren barruan.

Iñaki Jauregi

Tolosako lau t'erdiko txapelketan:

Jauregi - Alzuarain 14

Sorrealin - Argote 22

Kluben artekoan Urnietan:

Jauregi - Alzarain 19

Altur - Txapartegi 22

AGENDA

Esku pilota, Usurbilen

ASTEBURUAN

Calles eta Azkona Aretxabaletako bikotearen aurka (Partidua bi aldiz atzeratu dute eta larunbat honetan jokatu da.).

Haritz Laskurainek ASPE enpresak antolatutako bigarren mailako bikotekako txapelketako lehen partidua jokatuko du asteburu honetan. Chaffe izango bikote.

Jauregik Euskal Ligako partidua jokatuko du Añorgan Zaramagaren aurka.

Futbola, Ezozin

Soraluze - Ordizia (Erreg.)

Soraluze - Lengokoa "B" (Juben.)

Antzuola - Soraluze (Kadet.)

JAVIER ALONSO ZELAIETA

434 ZENB.KOL

**HORTZ
KLINIKA**

MEDIKU ESTOMATOLOGO

**ATXURI 1-1. ESK TELF. 943 751613****Hnos. BENITO
ANAIK**

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuesto konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

Leire Garcia Unamuno

“Hogei urtekin zinian edo antzerkixan aktorea izatia nahi neuke”

Errealaren partidua ikustera zihoala harrapatu dugu Leire. Domeka arratsaldea da eta esan digunez hori da gazteentzat jai egunetan dagoen gauza bakarra. Shin Chan-en jarraitzaile sutsua eta kirolari amorratua da nahiz eta bere jakirik gustokoena txuleta patatekin den.

Izena, abizenak eta adina.

Leire Garcia Unamuno, 10 urte.

Zenbagarren mailan zaude?

5.mailan.

Kolore bat, zenbakixa, animalixa eta abesti bat.

Kolorea urdina, zenbakixa 19xa, animalixa txakurra eta Bon Joviren edozein abesti.

Zure denbora librian ze egitten dozu?

Ba eskolatik urtetzen dotenian edo entrenamentua multikiroletakua eta entrenaimientua ez dagonian ba pintura egitten dot.

Gustoko menua?

Txuletia patatekin da gehixen gustatzen jatana.

Azkenaldixan egin dozun gaiztakeriaren bat?

Ba ez dakit, ez dittut egitten normalian.

Hiru desio.

Ba Realak punto gehixao irabaztia eta Soraluzen gauza gehixao egotia.

Ze falta jako Soraluzeri ba?

Zinia, ez dago umiak egoteko tokirik domeka arratsalde baten, ze oin Txokora juan bihar gara partidua ikustera.

Telebistako saio bat.

Sin Txan.

Zelakua izan bihar dau pertsona batek zure laguna izateko?

Ba majua, asko hasarretzen ez dana eta xuhurra ez dana.

Ze egingo zinue miloi bat eurokin?

Ba txalet bat mendixan, pisziniakin.

Lau zaldi familia danandako eta baratza edo zelai haundixa.

Zela ikusten dozu zure burua hemendik 20 urtetara?

Ba nahiko neuke aktorea izatia antzerkixan edo zinian.



Leire Garcia Unamuno

Pelikula baten ze papel egingo zinueke?

Protagonista. Ona eta igual polizia dana.

Ze ez zinue inoiz egingo?

Harrixak bota lehiuetara eta lapurtu bez.

Zelakua izan bihar dau mutil batek zuk begiz joteko?

Bertso Begiz

*Arratsaldetan uztartzen dittu
pintura eta kirola,
gaiztakeririk ez ei dau eitten
ai ama, arranopola!
Ta herrixan zinema
ez egotia pena.
Herrixan deus ez dagola!
Zaldi ta guzti txalet batian
neuk be bizi nahi dot hola!*

Neko

(Doinua: Iparragirre abila dela)

Morenua, majua, ni baino altuagua eta begixak berdin jata.

Txiste bat.

Familixa baten beti jaten zeben aurreko eguneko ogixa. Behin umiak galdetzen dotsa amari ia noiz jan bihar daben eguneko ogixa eta amak erantzuten dotsa : “bihar seme, bihar !”

LAUDIN
PROIEKTU ETA DISEINU INDUSTRIALA

Industrialdea, z/g
138 Postakutxa

tf: 943752150
Faxa: 943752118

SORALUZE



PASCUAL CHURRUGA, s.a.

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461
E-mail: general@pascualchurruga.com
Errekalde 21 20590 SORALUZE

Argazki zaharra



1964ko San Blas eguna

San Blas egunian opilak elizan bedeinkatzia ohituria da Plazentzian. Argazki honetan, oin 40 urte San Blasak bedeinkatu ostian Ezozi Bideko bankuan jarrita azaltzen dira neska mutikuak. Goitik hasita ezkerretik eskumara; Izaskun Lasa, Ruben Cortijo (+), Ezozi Benito, Judith Cortijo eta Amaia Gorostidi dare. Behean, Eva Cortijo, Amaia Zubizarreta, Saul Cortijo, Maite Gorostidi eta Rebecca Cortijo azaltzen dira.

Joseba Gorostidik lagatako argazkia.

Lehiaketa



Zer dago faltan edo zer soberan honetan?

Bi lagunendako afari mundial bat irabazi zeinke!!

DEITTU

943 75 13 04 ra

Aurreko alean...



erantzuna...: Labegain elkartepeko lehiotxo

...eta irabazlea: IRATXE BENITO

ARRANO
tabernia

Telefonia 75 24 09

“Giro euskalduna eta sanua”

ETORRI ETA GOZATU

etxera
EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK



Jose Antonio S.L.
igeltzeritza

Gabolatz, 19 - Telefonia 943 75 11 14 - 943 75 24 49
20590 SORALUZE (Gipuzkoa)



Ugaraxo

2004ko Danborrada



Kaixo,

Oraingoan gure txanda da. Hiru urteko neska-mutikoak gaituzue, argazki bi hauetan garano, jo ta ke lanean.

San Sebastian eguneko danborrada dea eta, jantziak gertatu beharra daukagu. Ez pentsa adin txikikoak izateagatik jolasean bakarrik egiten dugunik. Guri dagokigun lana, txapela eta bizkarrean daramagun koilara eta sardeska margotzea dira.


Ah! Eta ez hori bakarrik, danborra jotzen ikasteko, egunero jolasorduari tartetxo bat kenduta entsaiatzen dugu.

Hau lana hau!

Hurrengo orrira pasa →



Plaentxi H. I. eta Pil-pilean aldizkarixa elkarlanian
ALDIZKARI HONEK UDALAREN DIRULAGUNTZA JASOTZEN DU
EUSKARA BULTZATZEKO



2004ko Danborrada



Argazki hauetan lan txukunaren emaitza. Ze dotore gauden eh! Aurpegiak margotuta, dena bere lekuan dugula, gertu danbor hotsak hasi daitezten, eta amaieran zuen txalo zaparrada jasotzeko pozian.

Merezi dugu ez?

2.mailakoak barrez barrez gaude



Plaentxi Herri Ikastetxeko Haur Hezkuntzako 2. mailako ikasleak oso gustora gaude Ugaraxon azalduko garelako. 28 Neska mutiko gara, gelan liburutegia ere badugu eta beste hainbat gauza. Irakurtzen eta matematikak ikasteaz gain, lagun bikainak ere egi-ten ditugu eskolan. Bizitza guztian lagun izango ditugun pertsonak ezagutzen ditugu. Zorte handia dugu egia esateko!



txikinkesta

Zertan zare izena emonda eskolaz kanpoko orduetan?

AITANA CORTES 7 URTE

Dantza taldean nabil, ostiraletan entsaiatzen dogu. Musika eskolara be juaten naiz solfeua eta biolina ikastera. geriketa, ludoteka eta katesizmaa be badaukat.



IBAN LOPEZ 7 URTE

Musika eskolan nabil. Solfeua eta klarinetia ikasten dittut. Hortik aparte, igeriketan eta inglesian be banabil. Ludotekara juaten naiz eta katezismua be eukitzen dot.



AITOR HERNANDEZ 7 URTE

Juduan nao apuntauta, astearte eta ostegunetan juaten naiz. Ludotekara juaten naiz edo lagunekin futbolian jokatzen dot. Katezismua be badaukat.



PAULA ALONSO 7 URTE

Dantza taldean eta pinturako eskolan apuntauta nago. Musika eskolara be juaten naiz solfeua ikastera. Zortzi urtekin arpa jotera juango naiz Donostiara.



Irakasleari azterketa

Maite Gorostidi

48 urte



Eskolan ze irakasgai gorroto zenuen txikitan?
Erakusten zoskuen euskal gauzen kontrako politika. Cara al Sol abestu eragitia eta hori...

Zein izan da zure irakaslerik onena?

Jesus Arribas. Litertura erakutsi zostan. Asko zexikan eta asko saiatzen zan erakusten.

Zein da egin dizuten galderarik zailena?

Heriotzaren inguruko kontuak. Gai hori ez da erreza.

Ze ezberdintasun dago lehengo ikasleetatik oraingoetara?

Lehengo umiak malizia gutxiago euken. Oinguak lo-tzagabetsuaguak dira.


Eta gurasoetan?

Ikastola ginanian gurasuak lanerako beti prest egoten zran.

Eta irakasleetan?

Gurasoen antzeratsu irakasliok be aldatu egin gara. Bizitza honetan jakin beharreko irakasgai nagusia?

Elkar ulertzeko ahalmena izan bihar genduke.



Lehiaketa

Pertsonaia ezaguna

Zein lan egiten du ale honetako soraluzetarrak?

KARIDADEKO BENTA



CDa irabazi zeinke.

Bialdu e-mail bat
pilpilean@euskalnet.net
edo deittu
943 75 13 04ra



Aurreko alean...

ARANTXA GABILONDO
Liburuzaina



Arantxak 24 urte inguru daramatza lanean Udal Liburutegiko arduradun moduan. Arantxak, liburutegira doazen herritarrei liburu eta informazioaren berri ematen die eta horrez gain, liburu denak ordenatuta izateaz ere arduratzen da. Jendeak eramaten dituen liburu jarraipena ere egiten du. Liburu artean izaten da arratsaldero 17:00etatik 21:00ak bitartean.

Denbora pasa

Sukaldean... Limoi Mussa

OSAGAIK

Esne kondensatua:
500g
4 Limoi
Yogurt naturalak Bio

MATERIALA

Ontzi handia
Batidora
Zukugailua

ERREZETA



Lehenengo esne kondensatua ontzi handi batean bota.

Gero, yogurrak ontzira bota eta ondo nahastu batidora erabiliz.




Ondoren, limoiekin zukua atera.



Eta azkenik, zukua ontzi handi batera bota.




Gurutzegrama






- 1.- Bere zukua gosaltzeko edan ohi dugu.
 - 2.- Tostada gainetan jartzen dugun esnekia.
 - 3.- Udare ere deitzen zaio fruta honi.
 - 4.- Zapore desberdinetako esnekia.
 - 5.- Udaran gustora hartzen dugun esneki hotz eta goxoa.
- A.- Errapeetatik ateratzen dena.

BADATOR...



 **SORALUCE**

Fresaketa teknologia



 **SORALUCE**
GRUPO DANOBAT


 **SORALUCE S.Coop.** • Osintxu auzoa • P.O.Box. 90 • E-20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Tel. +34 943 769076 • Fax: +34 943 765128 • Web: www.soraluce.com

Gazteei zuzendutako eskaintza

Masai tailandiar ikastaroa

" Gorputzeko energia oreka fisiko, mental eta emozionala lortzera bideratua "

Otsailaren 7, 14 eta 21ean 10:30etatik 13:30etara, Ikastola zaharrean



Izen emate: 5 ikasle langabetu eta bazkideentzat ,10 gainontzekoentzat
Apuntatzeko deitu azkar 943 751304 telefonora (14 pertsonako plaza mugaketa)

antolatzailea :



laguntzailea:



ESOZIA JATETXEA

Zatoz eta gozatu
gure jakiak!



EZOZI jatetxean bazkari eta afaririk
ederrenak preziorik onenean.

Eguneroko menua
eta aukera zabala kartara.

Ezozi Auzoa Tel: 943 751001 SORALUZE